

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2102

974/2022 EBAZPENA, apirilaren 4koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez hutsik uzten den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Endoskopiako Unitateko Gainbegirale lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia.

Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen abenduaren 31ko 1564/2021 Ebazpenaren bidez, Donostialdeko ESIko Endoskopiako Unitatean Gainbegirale lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia iragarri zen.

Deialdian horretarako emandako epearen barruan ez da hautagairik aurkeztu.

Hori dela eta, Langileen alorrean indarrean dagoen legediak Zuzendaritza Gerentzia honi aitortutako ahalmenez baliatuta, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESIko Endoskopiako Unitateko Gainbegirale lanposturako deialdia hutsik uztea, Ebazpena EHAAn argitaratzen den egunetik aurrera.

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean eta EHAAn argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argiratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2022ko apirilaren 4a.

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.

EB (53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Langileen zuzendaria,
ESTHER LITAGO SOLA.